



Gipuzkoako sagardogileak 31. Sagardo Egunean. GIPUZKOAKO SAGARDOGILEEN ELKARTEA

GIPUZKOAKO SAGARDOGILEEN FESTA HANDIA

Gipuzkoako 34 sagardogileren sagardoak dastatu ahal izan ziren Donostiako 31. Sagardo Egunean, irailaren 3an. Elhuyar fundazioa omendu zuten, eta giroa ederra izan zen.

Urtero bezala, Gipuzkoako Sagardogileen Elkarteak Donostiako Sagardo Eguna antolatu zuen, Donostiako Euskal Jaien barruan. Horretarako, Donostiako Udalaren, Donostia Festak erakundearen, Gipuzkoako Foru Aldundiaren, Eusko Jaurlaritzaren eta Hazi fundazioaren laguntza izan zuen.

Gipuzkoako 34 sagardogileren sagardorik onenak dastatu ahal izan ziren Konstituzio plazako arkupetan ipiniriko postuetan. Guztira, 8.000 botila sagardo ireki ziren, eta Konstituzio plaza

jendez gainezka egon zen, giro ederrean. Hainbat trikitilarik giroa alaitu zuten, eta sagardoa dastatzen laguntzeko bakailao tortilla, txorizo eta gazta pintxoak banatu zituzten, aurreko urteetan bezala. Gipuzkoako Sagardogileen Elkarteak sagardogileez gain, Eusko Jaurlaritzako, Hazi fundazioko, Gipuzkoako Foru Aldundiko, Ostalaritza elkarteak eta Bertsozale Elkarteak ordezkariak izan ziren, eta zenbait herri-tako alkateak ere bai.

Donostiako Sagardo Eguna urteroko ekitaldi garrantzitsu bat baita Gipuz-

koako sagardogileentzat, baita Donostiako, Gipuzkoako eta Euskal Herriko sagardozaleentzat nahiz kanpokitik etorritako turista sagardozaleentzat ere.

Donostiako 31. Sagardo Egunean, Gipuzkoako sagardo naturala dastatzeko aukera eskaintzeaz gain, hainbat berrikuntza izan ziren. Sagardo Eguna edukiz hornitu eta izaera emateko asmoz, aukera izan zen Konstituzio plazan bertan sagarra jo eta zanpatzen ikusteko, eta muztioa nola egiten den ikasi eta muztioa dastatzeko.

Baita sagardogileen hitz egiteko eta iritziak trukatzeko ere. «Sagardogintzak atzean duen lan eta kultura guztia» jendeari erakustea zen Gipuzkoako Sagardogileen Elkartearen asmoa, eta haurrek, gaztetxoek eta helduek muztioa dastatzeko modua izan zuten. Horrekin batera, txertaketa postu bat eta informazio gune bat ere jarri ziren.

Informazio gunean, Gipuzkoako Sagardogileen Elkarteak sagardoaren ezaugarriak jakinarazi zizkien sagardozaleei eta kanpotik etorritako ehundaka bisitariei: graduazio baxuko edaria dela, freskagarria, sagarrak dituen onura eta ezaugarri asko dituela, eta neurrian edanez gero oso osasungarria dela. Eta sagardoaren gaineko informazioa ematez gain, sagardotegien eta sagardoaren kulturaren inguruko informazioa ere eman zuten.

Omenaldia Elhuyar fundazioari

Elhuyar Fundazioa omendu zuen Gipuzkoako Sagardogileen Elkarteak, *Sagardoa Bidegile* dokumentala egiteagatik eta dokumentala egiteko elkarlana sustatzeagatik. Filma 2015eko Donostiako Zinemaldian aurkeztu zuten, eta, geroztik, Euskal Herriko hainbat herritan eman dute, eta baita Argentinan eta Polonian ere.

Mila esker bertsoaren bidez, Gipuzkoako Sagardogileen Elkarteak eskerak eman zion Elhuyar fundazioari. Hauxe dio bertsoak: «Elhuyarrentzat gure eskerrak/ Eta bejondeizuela/ Dokumentala nola izan den/ Oso gustuko kupela/ Sagar nahasketa egokiena/ Asmatu balitz bezela/ Ta irakaspen bat utzi digu/ Sakona eta itzela/ Gaur sagardoa asko den arren,/ Lehenago ere bazela/ Eta geroa elkarlanean/ Eraiki beharko dela».